Beraien eraginkortasuna dagozkion oinarriak eta diru-laguntza lerroen deialdiak onartzearen menpe dago, eta baita ekitaldi bakoitzean aurrekontua izateari ere.

Diru-laguntzak egoteko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu-kontsignazioak eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

#### 14. INDARRALDIA

Plan hau hiru urtez egongo da indarrean, hau da, 2021-2023 aldian.

2023ko ekitaldia amaituta, Diru-laguntzen Plan Estrategiko berririk onartzen ez bada, ulertuko da Plan hau luzatzen dela egikaritutako diren jardun-ildoetan, betiere horretarako aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa badago.

Oro har, Udalak emandako diru-laguntzak gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, eta justifikaziorako aukeratutako epea urte naturala izango da. Inguruabarrak direla-eta, kontratua gauzatzeko urtebetetik gorako epea ezarri behar bada edo epe hautagarria aldatu behar bada, dagozkion diru-laguntzen oinarrietan jaso beharko da.

#### 15. ONARTZEKO ESKUMENA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko organo eskuduna Urrietako Udalbatza da, diruz lagundu edo sustatu beharreko jarduera estrategikoki planifikatzeko eta kudeaketa ekonomikorako tresna baita, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluko e) puntuan aurreikusitakoaren arabera.

## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

### 16. EREMU SUBJEKTIBOA

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek Urrietako Udalak bere sailetatik zuzenean ematen dituen diru-laguntzak hartzen ditu barne.

### 17. PRINTZIPIO OROKORRAK

- Publizitatea eta lehia askea aurrez egindako deialdi bidez, non objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehia eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko baitira, hori guztia emakida zuzenaren kalterik gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu-kontsignazioa eta hitzarmen izenduna izan beharko ditu.
- Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.
- Eraginkortasuna finkatutako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.
- Diru-laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.
- Diru-laguntzak egonkortasun-printzipioaren eta gastu-arauaren arabera emango dira, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak xedatzen duen bezala.

### 18. HELBURU OROKORRAK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legean dagoen legezko agindua betetzea, zeinak bere 8.1. artikuluan diru-laguntzak eman nahi dituzten Udalak behartzen baititu dagokien Plan Estrategikoa onartzera.
- Modu zuzenean eragitea diru-laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailen igoeran.
- Herritarrei diru-laguntzak jasotzeko aukerak erraztea, gardentasun, udal irizpideen berdintasuna eta lehia librea bermatuz.
- Diru-laguntzetarako udal kudeaketa arrazionalizatzea zeharkako plangintza erraztuz, prozedurak sistematizatuz eta ebaluaziorako baliabide tekniko aurreratuak jarritz.

### 19. JARDUKETA-LERRO ESTRATEGIKOAK

Hauek dira Plan Estrategiko honetan dauden jarduketa-estrategiak, non Udalaren aurrekontu-lerroak baitaude:

- 9- Gizartekintza
- 10- Garapenerako lankidetzeta eta giza eskubideak

## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

- 11- Kultura-sustapena
- 12- Kirolaren sustapena
- 13- Garapen pertsonala
- 14- Euskararen normalkuntza
- 15- Hezkuntza
- 16- Merkataritza

Urnietako Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, 2021-2023 aldirako, I. Eranskinean dago, aurrekontuen lerro estrategikoen eta programen arabera sailkatuta; horietako bakoitzarentzat honakoa zehazten da:

- Helburu estrategikoak.
- Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak
- Zer helburu eta xede lortu nahi diren diru-laguntzak ematearekin.
- Lortzeko beharrezko epea/denbora tartea.
- Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio-iturriak.
- Ekintza-plana.
- Segimenduaren eta ebaluazioaren araubidea.
- Emakidaren erregimena/modalitatea.
- Onuradunak/hartzaileak
- Dagokion kredituaren kontsignazioa aurreikusten den aurrekontu-aplikazioa.

### 20. ONURADUNAK

Diru-laguntzen onuraduntzat hartuko da diru-laguntza hori emateko arrazoia den jarduera egin behar duen, edo diru-laguntza jaso izana legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.

### 21. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Urnietako Udalak diru-laguntzak emango ditu diru-laguntzen arloan indarrean dagoen arautegiaren arabera eta norgehiagoka-araubidean egin beharreko deialdi publikoaren bidez edo, salbuespen gisa, zuzeneko emakidaren bidez, betiere pertsona fisiko edo juridikoen alde, publiko edo pribatuen alde, ondasun erkidegoen alde edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare unitate bananduen alde, baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, diru-laguntza arrazoitzen duen egoeran dauden proiektuak, jarduerak edo jokabideak aurrera eraman ahal badituzte.

Horiek emateko, honako prozedura-mota hauek ezartzen dira diru-laguntzen emakidan:

- Norgehiagoka-erregimenean emandako diru-laguntzak.
- Aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izendunak.
- Zuzenean emandako diru-laguntzak, baldin eta frogatzen bada interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak daudela, edo behar bezala egiaztatzen bada deialdi publiko baten bidez emateko zailtasuna.
- Lege mailako arauen batek hala ezarrita, Urnietako Udalak eman beharreko diru-laguntzak edo diru kopurua.

### 22. EGIKARITZEKO EPEAK

Oro har, urteko egikaritze-epea izango dute udalak emandako diru-laguntzek. Aldia hautatu ahal izango da, urte naturala justifikatzeko ondorioetarako.



Urrietako  
udala

## **2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021**

Inguruabarrengatik komenigarri baldin bada urtebetetik gorako epea ezartzea, diru-laguntzei dagokien oinarrietan jaso beharko dira.



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

### 23. FINANTZAKETA ETA KOSTUAK

Plan Estrategiko honetan aurreikusten diren diru-laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kredituak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuan, eta, hala badagokio, diru-laguntzen deialdia arautzeko oinarriak onartu beharko dira norgehiagoka kasuan, edo baita zuzenean ematea onesteko erabakiak hartu ere.

Diru-laguntza emango bada, aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioak bete behar dira.

Kostuak, kasuan-kasuan, Urrietako Udalaren aurrekontu orokorrean urtero ezartzen den kopurura mugatzen da.

Ezin izango da diru-laguntzarik eman zehazten den zenbatekotik gora.

Nolanahi ere, kredituek izaera mugatzailea eta loteslea dute; beraz, ezin izango da gastu-konpromisorik hartu haien zenbatekotik gora. Edozein diru-laguntza mota eman aurretik, dagokion gastuaren baimena tramitatuko da.

### 24. KONTROLA ETA SEGIMENDUA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren kontrola eta segimendua urtero egingo da bi alderditan:

Emandako diru-laguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa, zeina Udaleko Kontu-hartzaitzari agindua baitago eta indarreko legerian jasotako baldintzetan egingo baita.

Planaren kontrola eta segimendua, zeina diru-laguntza ematen duten sail bakoitzaren teknikari arduradunak egingo baitu urtero. Hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan justifikazio-memoria bat egingo da ondorengo zehaztapenekin:

- Helburua, erakunde onuraduna eta diruz lagundutako zenbatekoa.
- Diru-laguntza mota eta lerro bakoitzari buruzko informazioa, non emandako diru-laguntzak, justifikatuak, uko egindakoak eta ordaindutakoak (edo ordaintzeko prozeduran daudenak) jasoko baitira.
- Haien helburu espezifikoaren, lortze-eparearen betetze-maila, diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina zehaztuz.
- Benetako kostuak, aurreikusi direnekiko.
- Ondorioak edo balorazio orokorra lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidezkoitasunari buruz.
- Hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Aipatutako memoria dagokion Batzorde Informatiboan aurkeztuko da.

### 25. GARDENTASUNA

Lerro estrategiko, laguntza-programa eta deialdi bakoitzean Udalak emandako diru-laguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, bertan adieraziz laguntzak nori jaso dituen, zenbatekoa, eta diruz lagundutako proiektua edo ekintza.



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

### ERANSKINA

LERRO ESTRATEGIKOA	GIZARTEKINTZA
PROGRAMA	23130 Gizarte Larrialdietarako laguntzak
11. Helburua	Gizarte-larrialdietarako laguntzak aldian-aldian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta horien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak –ohikoak zein apartekoak– aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.
12. Onuraduna	Beharrezkoak diren ohiko edo ez ohiko izaerako gastu espezifikoak aurre egiteko, nahiko baliabide ekonomikorik ez daukaten pertsonak edo/eta familiak
13. Helburu espezifikoak	. Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen urteko Aginduan jasotako gastu zehatz batzuei lotutako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzea. . Pertsonak eta/edo familiei laguntzea, gizarte-bazterkeria edo gizarte-bazterkeriaren arriskua saihesteko.
14. Denbora-tartea	Urtekoa
15. Finantzatzeko aurreikusi diren kostuak	2021: 140.000€ 2022: 145.000€ 2023: 145.000€
16. Ekintza plana: oinarri arautzaileak izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	Prestazioa gizarte-zerbitzuetan tramitatzen da, eta bertan baloratzen da behar zehatza. Erreferentziako gizarte-langileak egoera baloratuta, proposamena bideratuko du, aldekoa bada, prestazioaren ezaugarriak, denboraldiak... zehaztuta, ezekoa bada arrazoituta, beti ere guztia, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.  Eusko Jaurlaritzak onartutako araudi erregulatuak orokorrak, hauek jasotzen ditu: diru-laguntzen xedea eta helburuak, hartzaileak eta sarbide-baldintzak, emateko kontzeptuak eta irizpideak, laguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko kopurua, diruz lagundutako kontzeptuen justifikazioa, hartzaileen betebeharrak.  Udalak ezarritako diru laguntzaren kudeaketarako urteko irizpideak izanez gero, hauek kontutan izango dira.  Eskabidea urtean zehar aurkezteko aukera dago
17. Jarraipena	Jakinarazpenean zehazten dira laguntza erabiltzeko baldintzak, zenbatekoa, aldia, justifikazioa eta onuradunari esleitzen zaizkion betebeharrak.
18. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka
19. Onuradunak	Egoera ekonomiko larrian dauden pertsonak eta/edo familiak
20. Aurrekontu-saila	1 0600.480.231.30.01 2020 (546)



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	GIZARTEKINTZA
PROGRAMA	23170 Udal laguntza ekonomikoak gizarte-zailtasun egoeran dauden pertsoneri eta/edo familiei.
8. Helburu estrategikoak	Pertsonen gizarteratzea, beraien autonomia eta ongizatea ahalbidetuz, laguntza, sustapena, prebentzioa eta babes funtzio bat garatuz.
9. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Pertsonala, familiarra edo/eta soziala. Beraien bizi-kalitatea eta gizarteratzea mugatzen duen zailtasun egoeran dauden pertsoneri eta/edo familiei diruz lagunduz.
10. Helburu espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"><li>. Droga-mendekotasun egoeretatik irteteko errehabilitatzen ari diren pertsoneri diru laguntza ematea.</li><li>. Desgaitasun aitortu bat duten adingabeen gurasoei diruz laguntzea seme edo alabaren garapen integralerako lagungarriak izango diren tratamenduetarako.</li></ul>
11. Denbora-tartea	Urtekoa
12. Finantzatzeko aurreikusi diren kostuak	2021 7.100 € 2022 8.000 € 2023 8.000 €
13. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prestazioak Gizarte zerbitzuetan ematen dira atzemandako beharra balioztatu ondoren. Erreferentziazko gizarte-langileak egoera bideratzen du eta prestazio ekonomikoaren bidez proposatzen du laguntzea. Prestazioaren denborak eta ezaugarriek profesionalak eta diru-laguntza mota bakoitzarentzat ezarrita dagoen indarreko araudiak berak egindako proposamenari erantzuten diete.</li><li>• Araudiek xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, diru-laguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, diru-laguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dute.</li></ul>
14. Segimendu-erregimena	<ul style="list-style-type: none"><li>• Diru-laguntza onartu ondoren eta hori ordaindu aurretik, nolahi ere, onuradunek tratamendu-zentroak, autolaguntza-taldeak egindako bertaratze-egiaztagiriak edo tratamenduaren ondoriozko bestelako gastuak aurkeztu beharko dituzte hileroko. Egiaztagirian adierazi beharko da, halaber, tratamendura joan den egunak, bakarrik edo norbaitekin joan den, edo hala badagokio, aurkezten den gastuaren kontzeptua.</li><li>• Diru-laguntza dagokion faktura aurkeztu ondoren ordainduko da. Urtea amaitu ondoren soilik abenduko faktura gera daiteke entregatzeko eta ordaintzeko. Hori aurkezteko gehieneko epea hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 izango da.</li></ul>
15. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka
16. Onuradunak	Gizarteratze egokia bat izateko zailtasun zehatzak (adikzioa, desgaitasuna) dituzten pertsonak edo/eta familiak.



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

17. Aurrekontu-saila	1 0600.481.231.70.03 2020 (774) 1 0600.480.231.70.01 2020 (1390)
----------------------	---

LERRO ESTRATEGIKOA	GIZARTEKINTZA
PROGRAMA	23171 Pertsonak eta/edo familiak gizarteratzeko laguntza
1. Helburu estrategikoak	Pertsonak edo/eta Familien gizarteratzea, beraien autonomia eta ongizatea ahalbidetuz. Laguntza ematea, sustapena, prebentzioa eta babesba garatuz.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Pertsonala, familiarra eta soziala. Zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak eta/edo familiak.
3. Helburu espezifikoak	Estali beharreko oinarrizko premiak dituzten eta egoera ekonomiko oso larrian dauden pertsonen e/etako familiei laguntzea.
4. Denbora-tartea	Urtekoa
5. Finantzatzeko aurreikusi diren kostuak	2021: 7.000 € 2022: 8.000 € 2023: 8.000 €
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	Diru-laguntza araututa dago, araudian bertan zehazten da: xedea eta helburuak, hartzaileak eta eskuratzeko baldintzak, diru-laguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, diru-laguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa, laguntzaren iraupena eta hartzaileen betebeharrak.
7. Segimendu-erregimena	Diru-laguntzaren onuradunei egingo zaien jakinarazpenean espreski adieraziko da laguntza kobratzeko bete behar dituzten baldintzak zeintzuk diren.
8. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka
9. Onuradunak	Egoera ekonomiko larrian dauden pertsonak eta/edo familiak.
10. Aurrekontu-saila	1 0600.480.231.71.01 2020 (2221)



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA LAGUNTZA
PROGRAMA	23020 Gizarte lankidetzeta eta asoziazionismoa
1. Helburu estrategikoak	Garapenerako lankidetzeta ekimenak eta proiektuak eta herritarren elkartasuna sustatzen duten Gizartekintza arloko proiektua babestea.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Soziala, Garapen eta Sustapen ekonomikoa, garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntza.
3. Helburu espezifikoak	<p>. Euskal Fondoarekin elkarlanean aritzea, beraiek proposatutako proiektuak, hainbat urteetarako programen baitan, babestea. Proiektuak, garapen bidean dauden herrialdeko garapen pertsonala, soziala, sozio-ekonomikoa..... garatzeko lagungarriak dira..</p> <p>. Arlo honetan lan egiten duten herriko Misiolariei laguntza ematea garapen bidean dauden herrialdeetan proiektu edo programa eta/edo ekintza humanitarioak aurrera eramateko.</p> <p>. Gizarte Zerbitzu arloko elkarteekin elkarlanean aritzea, herritarren elkartasuna eta partehartzea sustatu eta gizarte inklusiorako lagungarriak diren proiektuak garatu ahal izateko.</p>
4. Denbora-tartea	Urtekoa
5. Finantzatzeko aurreikusi diren kostuak	2021: 19.400 € 2022: 19.400 € 2023: 19.400 €
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	<p>. Udalak konpromiso bat du politika solidarioekin, eta hori betetzeko, laguntza eta dirua ematen die helburu espezifikoek erantzuten dieten proiektuak eta/edo programak egiten dituzten erakundeei eta/edo elkartei.</p> <p>. Erakunde eta/edo elkarte horiekin lankidetzeta-hitzarmenen bitartez elkarlana, konpromisoak, betebeharrak, diru laguntza kopurua, epeak eta abar.... zehazten dira.</p>
7. Segimendu-erregimena	Euskal Fondoaren hitzarmenean Segimendu Batzorde bat dagoela adierazten da, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Gainontzeko herriko elkarteekin, elkarlana bakoitzarekin sinatutako hitzarmenetan zehazten da. Jarraipena eta justifikazioa zehazten da eta gauzatutako ekintzen urteko memoria eta gastuen egiaztagirien bitartez egingo da
8. Emakida-modalitatea	Izenduna Hitzarmenarekin
9. Onuradunak	Euskal Fondoa, Odol Emaileak.
10. Aurrekontu-saila	1 0600.481.230.20.07 2020 (920) 1 0600.481.230.20.02 2020 (881)



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	KULTURA SUSTAPENA
PROGRAMA	334.00 Kulturaren sustapena
1. Helburu estrategikoak	Herritarren artean kultura-zaletasuna sustatu. Kulturaren bidez herritargo aktiboa sustatu. Herriko kultura-dinamikan, herritarren parte hartzea eta biltzeko dinamika sustatu. Beste kultura erakunde eta eragileekin herriko eskaintza kulturala aberasteko sinergiak lortu. Proiektu kulturalen sorkuntza eta garapena bultzatu, arlo artistiko desberdinetan.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Irabazi asmorik gabeko kultura-taldeak eta pertsona fisikoak egin beharreko kultura jardueratarako lankidetzak ekonomiko-kulturala.
3. Helburu espezifikoak	Elkarteen dinamika sustatzeko laguntza ekonomikoak eman, arlo ekonomikoan eta azpiegituretan lagunduz. Laguntza ekonomikoak eman erakargarria, egonkorra eta kalitatezko den programa baten barruan jarduerak programatzeko. Instalazioak eta azpiegiturek eskaini: bilerak, erakusketak. Emantzipazio-prozesuetan eragiten duten eta urnietarren aberastasun kulturala eta ohitura osasungarriak bultzatzen dituzten urnietarrei zuzendutako proiektuei laguntza ekonomikoak eman.
4. Denbora tartea	Urtekoa
5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 39.510,00 € 2022 39.510,00 € 2023 39.510,00 €
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prestazioak Sustapen Sozialeko eta Garapen Pertsonaleko sailean ematen dira atzemandako beharra balioztatzen denean edo onuradunek eskatuta. Prestazioaren denbora eta ezaugarriak araudian finkatutako irizpideei eta balorazio profesionalaren ondorioei erantzuten diete.</li><li>• Deialdiaren xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, merituek balioztatzeko irizpideak, baztertuak izateko irizpideak, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta konfidentzialtasun-klausulak.</li><li>• Lehentasunezko egutegia: deialdia urteko lehen hiruhilekoan.</li><li>• Lankidetzak-hitzarmen bidezko emakida izendunak dira, non xehetasun guztiak arautzen diren.</li></ul>
7. Segimendu-erregimena	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazle segimendua egiten da.</li><li>• Norgehiagoka emandako diru-laguntzaren onuradunek justifikatu beharko dute jasotako funtsak diru-laguntza emateko arrazoi izan diren helburuetarako erabili dituztela. Jarduerak justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da: Egindako jarduerak azaltzen dituen memoria eta lortutako emaitzen ebaluazioa.</li></ul>



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

	Ekintzari dagozkion gastuen faktura legalen kopiak eta faktura horien zerrenda. Diruz lagundu den jarduerari buruz argitaratutako dokumentu grafiko edo idatzi bakoitzaren ale bat: Kartelak, prentsa oharrak edo artikulua, programak, argitalpenak...
8. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka eta izenduna hitzarmenarekin.
9. Onuradunak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Egape dantza taldea</li><li>• Poxta Zahar Gazte koadrilen elkarte</li><li>• Urdanbor elkarte</li><li>• Xoxokako Auzo Elkarte</li><li>• Centro Cultural Extremeño</li><li>• Maria Rivier guraso elkarte</li><li>• Egapedanbor kultur elkarte</li><li>• Etxeberri Auzo elkarte</li></ul>
10. Aurrekontu-saila	1 0410.481.334.00. 01 2021 (494) jarduera sozio-kulturalak 2.700,00 € 1 410.481.334.00.20 2021 (2734) jarduera sozio-kultural bereziak 5.400,00 € 1 0410.481.334.00.12 2021 (2486) Egape Dantza Elkarte 6.300,00 € 1 0410.481.334.00.08 2021 (2539) Poxta Zahar Gazte koadrilen elkarte 8.100 € 1 0410.481.334.00.10 2021 (2541) Urdanbor Elkarte 1.800,00 € 1 0410.481.334.00.13 2021 (2521) Xoxokako Auzo Elkarte 8.100,00 € 1 0410.481.334.00.14 2021 (2522) Centro Cultural Extremeño 810,00 € 1 0410.481.334.00.17 2021 (2524) Maria Rivier guraso elkarte 1.350,00 € 1 0410.481.334.00.18 2021 (2526) Egapedanbor Kultur Elkarte 1.350,00 € 1 0410.481.334.00.19 2021 (2868) Etxeberri Auzo Elkarte 3.600,00 €



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	GARAPEN PERTSONALA
PROGRAMA	337.24 Gazteriaren sustapena
1. Helburu estrategikoak	Herritargo aktiboa eta aisialdi parte-hartzailea sustatu Urrietako haur eta gazteen artean. Musika sormena eta praktika sustatu gazteen artean.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Gazte-taldeak: musika, aisialdia...
3. Helburu espezifikoak	Musika taldeen entsegu-lokalak kudeatu eta grabazioak diruz lagundu. Aisialdiko heziketa eta jarduera ludikoak diruz eta azpiegituren bidez lagundu.
4. Denbora-tartea	Urtero
5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 7.920,00 € 2022 7.920,00 € 2023 7.920,00 €
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prestazioak Sustapen Sozialeko eta Garapen Pertsonaleko sailean ematen dira atzemandako beharra balioztatzen denean edo onuradunek eskatuta. Prestazioaren denboraldiak eta ezaugarriek araudian finkatutako irizpideei eta balorazio profesionalaren ondorioei erantzuten diete.</li><li>• Deialdiaren xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, meritua balioztatzeko irizpideak, baztertuak izateko irizpideak, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta konfidentzialtasun-klausulak. Lehentasunezko egutegia: deialdia urteko lehen hiruhilekoan.</li><li>• Besteak, lankidetzeta-hitzarmen bidezko emakida izendunak dira, non xehetasun guztiak arautzen diren.</li></ul>
7. Segimendu-erregimena	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazleen segimendua egiten da.</li><li>• Diru-laguntzak ematea Musika-proiektuaren ezaugarriak eta ibilbidea: kideen izenak, proiektu-mota, ordura arte emandako kontzertuak, argitaratutako diskoak, ekoiztutako ikus-entzunezkoak, zabalpena sare sozialetan... Grabazio lekua edo estudioa, horren kostua, argitaratutako ale-kopurua, nola eta non banatuko dira. Diskoaren bi ale. Grabazio eta edizio kostuen fakturak.</li></ul>
8. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka eta izenduna hitzarmenarekin.
9. Onuradunak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Bosco Anitz</li><li>• Urrietako musika taldeak</li><li>• Insmouth Rol elkarteak</li></ul>
10. Aurrekontu-saila	1 0430.481.337.24.01 2021 (1109) Bosko Anitz hitzarmena 6.120,00€





## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

	1 0430.481.337.24.02 2021 (1508) Gazte musika taldeak 1.080,00€ 1 0410.481.337.24.12 2021 (2520) Insmouth elkarteak 720,00 €
LERRO ESTRATEGIKOA	GARAPEN PERTSONALA
PROGRAMA	337.10 Jubilatuen etxea
1.- Helburu estrategikoak	Adineko pertsonen bizi-kalitatea sendotu, bere autonomia eta gizarte partehartzea sustatuz.
2.- Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Jubilatuen elkarteak.
3.- Helburu espezifikoak	Hirugarren adineko jolas-, aisia- eta hezkuntza-jarduerak diruz eta azpiegituren bidez babestea.
4.- Denbora-tartea	Urtekoa
5.- Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 21.600,00 € 2022 21.600,00 € 2023 21.600,00 €
6.- Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	Lankidetzak-hitzarmen bidezko emakida izenduna, non xehetasun guztiak arautzen diren.
7.- Segimendu-erregimena	Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazleak segimendua egiten da.
8.- Emakida-modalitatea	Izenduna hitzarmenarekin.
9.- Onuradunak	Dendaberri elkarteak.
10.- Aurrekontu-saila	1 0430.481.337.10.02 2021 (566) Jubilatuen Elkarteak 21.600,00€



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	KIROLAREN SUSTAPENA
PROGRAMA	326.21 Eskola kirola
1. Helburu estrategikoak	8-12 urte bitarteko haurren artean jarduera fisikoa eta mugimendua sustatu. Ondo pasa, dibertitu eta bizikidetzaz osasungarri bat sustatu. Ablezia motorea eta pertzepzio-gaitasuna landu. Kirol ezberdinen arauak ezagutu.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Eskola kirola programa garatzen duten Urnietako ikastetxeak.
3. Helburu espezifikoak	Laguntza ekonomikoak eskaini Urnietako Ikastetxeei Eskola Kirola programa aurrera eraman dezaten.
4. Denbora-tartea	Urtekoa
5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 17.280,00€ 2022 17.280,00€ 2023 17.280,00€
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	Lankidetzaz hitzarmen bidezko emakida izendunak dira, non xehetasun guztiak arautzen diren.
7. Segimendu-erregimena	Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazle segimendua egiten da.
8. Emakida-modalitatea	Izenduna hitzarmenarekin.
9. Onuradunak	Egape ikastola Presentación de María ikastetxea
10. Aurrekontu-saila	1.0420.481.326.20.01.2021 (517) Eskola kirola 4.680€ 1 0420.481.326.20.02..2021 (2485) Egape eskola kirola 12.600€



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	KIROLAREN SUSTAPENA
PROGRAMA	341.00 Kirolaren sustapena.
1. Helburu estrategikoak	Osasuna, kirol hezigarri-erlazionala, eta kirola guztion eskura dagoen jolas gisa sustatu. Hazkuntza pertsonala lagunduko duten aisialdi-ohiturak sortu. Kirol-jarduerak sustatu herriko klubekin elkarlanean. Jarduera ludikoak eta dibertimenduzko jarduerak sustatu oporraldian ikasleentzat eta gazteentzat. Eskola kirolaren diagnostikoa egin dituen premiak atzemateko eta horiek hobetzeko.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Bai banakako bai taldeko herriko kirol arloa.
3. Helburu espezifikoak	Kirol ekitaldiak antolatzen lankidetzak-hitzarmenak sinatu herriko klub eta erakunde desberdinekin. Errendimendu handiko kirolariei laguntza ekonomikoak eskaini kirol-diziplina desberdinetan. Buruntzaldeko kiroldegietan burutzen diren ur inguruneko ikastaroetara joateko desplazamenduentzako diru laguntza.
4. Denbora-tartea	Urtekoa
5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 64.362,00€ 2022 64.362,00€ 2023 64.362,00€
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prestazioak Sustapen Sozialeko eta Garapen Pertsonaleko sailean ematen dira atzemandako beharra balioztatzen denean edo onuradunek eskatuta. Prestazioaren denboraldiak eta ezaugarriak araudian finkatutako irizpideei eta balorazio profesionalaren ondorioei erantzuten diete.</li><li>• Deialdiaren xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, meritua balioztatzen irizpideak, baztertuak izateko irizpideak, diru-laguntza jasotzeko lortu beharreko gutxienezko puntuazioa, diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta konfidentzialtasun-klausulak. Lehentasunezko egutegia: deialdia urteko lehen hiruhilekoan.</li><li>• Lankidetzak-hitzarmen bidezko emakida izendunak dira besteak, non xehetasun guztiak arautzen diren.</li></ul>
7. Segimendu-erregimena	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazle segimendua egiten da.</li><li>• Lortutako sarien, diplomen, sailkapenen, marken, eta abarren ziurtagiriak. (Kontuan hartuko dira lehiaketa ofizialak eta dagokion federazioaren ziurtagiriak eskatuko dira).</li></ul>
8. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka eta izenduna hitzarmenarekin.
9. Onuradunak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Udal kirol-elkartek Urnietako Kirol Kluba (U.K.E.)</li></ul>



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

	<p>Eguzki Xake Taldea Zanpatuz Mendi Elkarte Xoxoka Motor Kirol Kluba Andoaingo Txirrindularitza Eskola Santa Cruz Elkarte</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Errendimenduko haundiko kirolarien dirulaguntzen kasuan: Urnietan erroldatuta egotea eskaeraren aurkezpenaren aurreko urtetik eta hori entregatzen den arte eta 16 urte izatea kontuan hartu beharreko proba egin den unean.</li><li>• Ur-inguruneko ikastaroak egiteko bidaiantzako dirulaguntzen kasuan: Urnietan erroldatua izatea eta Urrietako kirol instalakuntzetan bazkideak.</li></ul>
10. Aurrekontu-saila	<p>1 0420.481.341.00.00 2021 (514) U.K.E. 51.300,00€ 1 0420.481.341.00.02 2021 (1504) Eguzki xake taldea 300,00€ 1 0420.481.341.00.03 2021 (2488) Zanpatuz 2.187,00€ 1 0420.481.341.00.04 2021 (2750) Xoxoka Motor Kirol Klub 4.500,00€ 1 0420.481.341.00.05 2021 (2870) Andoaingo Txirrindularitza Eskola 2.340,00€ 1 0420.480.341.00.01 2021 (1506) Errendimendu Handiko Kirolariei zuzendutako diru-laguntza 1.800,00€ 1 0420.480.341.00.02 2021 (2867) Igeriketa ikastaroen bidaietara zuzendutako diru-laguntza 900,00€ 1 0410.481.341.00.17 2021 (2525) Santa Cruz Elkarte 1.035,00 €</p>

## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	EUSKARAREN NORMALKUNTZA
PROGRAMA	335.00 Euskara
1. Helburu estrategikoak	Euskal kultura eta euskararen erabilera sustatu.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Euskal kulturaren sustapen-arloa. Hau sustatu nahi da: hizkuntzaren ikasketa eta sorkuntza literarioa, aisialdiko ikasketak, komunikabideak euskaraz, herriko merkataritza.
3. Helburu espezifikoak	Bekak: euskara ikasi edo euskara-maila hobetu nahi duten euskaltegietako ikasleei lagundu. Monitoreak: euskarazko aisialdiko monitore edo zuzendari ikastaroetako ikasleei lagundu. Antia: euskarazko sorkuntza literarioaren sustapena. Errotuluetarako diru-laguntzak: izaera ofizialekoak ez diren merkataritzako edo mota guztitako erakundeek errotuluak euskaraz edo ele bitan jar ditzaten. Euskal prentsa: euskal kultura eta euskara sustatzea, eta euskararen erabilera bultzatzea, zabaltzea eta bermatzea. Urnietan euskara ikastea sustatzea.
4. Denbora-tartea	Urtekoa
5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 72.505,00 € 2022 72.505,00 € 2023 72.505,00 €
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestazioak Sustapen Sozialeko eta Garapen Pertsonaleko sailean ematen dira atzemandako beharra balioztatzen denean edo onuradunek eskatuta. Prestazioaren denboraldiak eta ezaugarriek araudian finkatutako irizpideei eta balorazio profesionalaren ondorioei erantzuten diete.</li> <li>• Deialdiaren xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, merituak balioztatzeko irizpideak, baztertuak izateko irizpideak, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta konfidentzialtasun-klausulak. Lehentasunezko egutegia: deialdia urteko lehen hiruhilekoan.</li> <li>• Bestek, lankidetzak-hitzarmen bidezko emakida izendunak dira, non xehetasun guztiak arautzen diren.</li> </ul>
7. Segimendu-erregimena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazleak segimendua egiten da.</li> <li>• Diru-laguntzak ematea (aisialdiko monitore ikastaroak euskaraz) <ul style="list-style-type: none"> <li>Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea.</li> <li>Ikastaroaren ezaugarriak eta ikastaroan matrikulatuta egotea egiaztatzen dituen agiria.</li> <li>Ikastaroaren zati teorikoa gainditu izana egiaztatzen duen agiria (Aisialdi Eskolak emandakoa).</li> <li>Aisialdiko monitore edo zuzendari titulazioa lortu ondoren, horren kopia bat aurkeztu behar du udaletxean.</li> </ul> </li> <li>• Diru-laguntza ematea (matrikulazioa euskara ikastarotan)</li> </ul>



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

	<p>Beste diru-laguntza bat eskatua izanez gero, horri buruzko aitortpena.</p> <p>Euskaltegiaren ziurtagiria (bertaratzea, ikastaroaren aprobetxamendua, ordaindutako matrikularen zenbatekoa, etab.)</p> <p>Langabezian egoteagatik diru-laguntza jaso ahal izateko, kontuan hartuko da ikastaroaren matrikula egiten denetik diru-laguntza eskatzen den arte uneren batean langabezian egotea, eta lan-bizitzari buruzko txostenaren bidez egiaztatuko da.</p>
8. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka eta izenduna hitzarmenarekin.
9. Onuradunak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskaltegiko ikasleak diren erroldatutako pertsonak.</li><li>• 18 urtez gorakoak; 16 urtetik behera dituzten herriko ikastetxeetako ikasleak eta erroldatutako pertsonak.</li><li>• Monitore edo zuzendari ikastaroetako ikasleak diren erroldatutako pertsonak.</li><li>• Izaera ofizialekoak ez diren merkataritzako edo mota guztitako erakundeak.</li><li>• Erroitz B.M. eta Euskaraz koop.e.</li></ul>
10. Aurrekontu-saila	<p>1 0440.480.335.00.02 2021 (2445) Monitoreei zuzendutako diru-laguntza 675 €</p> <p>1 0440.481.335.00.03 2021 (810) Euskaltegietakoa beka 22.000,00 €</p> <p>1 0440.480.335.00.02 2021 (540) XXVII Antia literatura-saria 3.960,00 €</p> <p>1 0440.481.335.00.08 2021 (2519) Errotuluetarako diru-laguntza 270,00 €</p> <p>1 0440.481.335.00.06 2021 (1159) Prentsa euskaraz 36.000,00 €</p> <p>1 400.481.335.00.99 2021 (2482) Euskaltegia 9.600,00 €</p>



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

LERRO ESTRATEGIKOA	HEZKUNTZA
PROGRAMA	326.00 Hezkuntzako zerbitzu osagarriak
1. Helburu estrategikoak	Hezkuntza arloko elkarte eta erakundeekin harremanak sustatu.
2. Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Gure erakundea eskolaz kanpoko hezkuntza osagarriaren arloan beharrezko laguntzaile gisa ikastetxeekin koordinatuz.
3. Helburu espezifikoak	Ikastetxeetako guraso elkartei laguntzak eskaini. Ikastetxeei laguntzak eskaini jarduera osagarriak egiteko. Eskualdeko HHletan ikasketak egiten ari diren urnietarrei laguntzak eskaini.
4. Denbora-tartea	Urtekoa
5. Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 10.665 € 2022 10.665 € 2023 10.665 €
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestazioak Sustapen Sozialeko eta Garapen Pertsonaleko sailean ematen dira atzemandako beharra balioztatzen denean edo onuradunek eskatuta. Prestazioaren denboraldiak eta ezaugarriek araudian finkatutako irizpideei eta balorazio profesionalaren ondorioei erantzuten diete.</li> <li>Deialdiaren xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, merituek balioztatzeko irizpideak, baztertuak izateko irizpideak, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta konfidentzialtasun-klausulak. Lehentasunezko egutegia: deialdia urteko lehen hiruhilekoan.</li> <li>Besteak, lankidetzeta-hitzarmen bidezko emakida izendunak dira, non xehetasun guztiak arautzen diren.</li> </ul>
7. Segimendu-erregimena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Diru-laguntzak ematea (HHletarako bidaiak): HHlren ziurtagiria, non bertaratzea eta taldea egiaztatu beharko baita.</li> <li>Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazlearen segimendua egiten da.</li> </ul>
8. Emakida-modalitatea	Norgehiagoka bidaietakoak Izenduna ikastetxeak eta guraso elkarten hitzarmenak. Zuzena HHI zentroa
9. Onuradunak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeak eta bertako guraso elkarteak.</li> <li>Urnietan erroldatutako pertsonak.</li> <li>Hernaniko HHI Zentroa</li> </ul>
10. Aurrekontu-saila	1 0440 480 326 00 01 (1111) HHlrako bidaiak 630,00€ 1 0440 480 326 00 02 (2866) HHI Zentroari dirulaguntza 360,00€ 1 0440.481.326.00.02 2021 (2761) AMPA AZKORTE 990,00 1 0440.481.326.00.03 2021 (2762) AMPA BOSKO TALDEA 1.134,00 1 0440.481.326.00.04 2021 (2763) COLEGIO SALESIANO 1.179,00 1 0440.481.326.00.05 2021 (2764) EGAPE LH 2.160,00 1 0440.481.326.00.06 2021 (2765) EGAPE BH 890,00 1 0440.481.326.00.07 2021 AMPA ABALLARRI 1.620,00 1 0440.481.326.00.08 2021 AMPA MARIA RIVIER 927,00



## 2021KO URTARRILAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE ENERO DE 2021

	1 0440.481.326.00.09 2021 MAGALE PRESENTACIÓN DE Mª 775,00
LERRO ESTRATEGIKOA	MERKATARITZA
PROGRAMA	433.00
1.- Helburu estrategikoak	Urnietako hurbileko merkataritzaren lehiakortasuna dinamizatzea, sustatzea eta laguntzea.
2.- Diru-laguntzak emateko eskumena duten arloak eta diru-laguntzak zein sektoretara zuzentzen diren	Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2-2016 Legearen 17.1.25) eta 34) artikuluetan xedatutakoaren esparruan, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako eremu material hauetan: "Tokiko garapen ekonomiko eta soziala eta tokiko enplegu-plan edo -politikak" eta "barne-merkataritzaren antolamendua eta kudeaketa, zehazki merkatu, azoka eta merkataritza ibiltariaren gaineko antolamendu eta kudeaketari dagokionez". Azken batean, hauxe da lortu nahi dena: Merkataritzaren dinamizazioa
3.- Helburu espezifikoak	Merkataritzako eta zerbitzu pertsonaletako negozioen inbertsio-ahalegina babestea, negozioak eguneratzeko eta itzuli beharrik gabeko laguntzen bidez lehiakortasuna hobetzeko.  Merkataritza-sektorea dinamizatzen laguntzea, erosketak egiteko giro egokia sortzen duten eta jendetza erakartzen duten kanpainak antolatuz.
4.- Denbora-tartea	Urtekoa
5.- Finantzatzeko aurreikusten diren kostuak	2021 50.000,00 € 2022 50.000,00 € 2023 50.000,00 €
6.- Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia	Lankidetzeta-hitzarmen bidezko emakida izenduna, non xehetasun guztiak arautzen diren.
7.- Segimendu-erregimena	Hitzarmen bakoitzean Segimendu Batzorde bat dago jasota, hori izenpetzen duten erakunde bakoitzeko kideek osatutakoa, eta bere helburua da jarduerak ikuskatzea, segimendua egitea eta proiektuak ebaluatzea. Hitzartutako proiektu bakoitzaren ebaluazio-adierazleen segimendua egiten da.
8.- Emakida-modalitatea	Izenduna hitzarmenarekin
9.- Onuradunak	Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzuen entitateak.
10.- Aurrekontu-saila	1 0400.471.433.00.01 (3051) DIRULAGUNTZAK MERKATARITZA 50.000,00